

AFORISMOAK

1. Isiltasunak ez daki beti baietz esaten
2. Galtzailea ere onena da, berean.
3. Errazago barkatzen ditut bekatu handiak. Txikiak ulertzera heldu egin behar baita.
4. Liburu bat oparitzea beste edozer gauza oparitzea bezala da: behar ez den zerbait.
5. Debeekatutako liburu bat irakurtzeak aske egiten zaitu. Gaur egun, batez ere.
6. Galdera ikurra ondo irakurtzen ez duena, erantzunik ez dakielako da.
7. Irribarrerik galtzen ez duten horiek oso arriskutsuak dira giza osasunarentzat: kutsatzea dute helburu.
8. Bazekien maitatzen baina beherapenetan bakarrik.
9. Beti pertsona bera izaten saiatzen naiz, nahiz eta egunero ezberdin pentsatu.
10. Gazte bilakatuko banintz, akats berberak desegingo nituzke.
11. Bizitzari bizkarra ematen diotenek ere, aurreraka egiten dute ihes.
12. Ez al litzateke hobe, gure bizitzako egun bakar batean munduko pertsonarik zoriontsuena izatea, gainontzeko egun guztietan apur bat zoriontsuago izaten saiatzea baino?
13. Salbuespenak ez datoz sekula bakarrik.

14. Iraganari etorkizuna iragartzeko eskatzen diogu eta etorkizunari iraganaz galdetzeko.
15. Benetako maitasuna: jolasaren arauak ezagutzen ez dituen.
16. Ezetz esaten jakin: eskatu dizutena irribarre batekin egitea.
17. Akats izugarri bat egin duzula ametsetan egin eta lasai esnatu, guztia amets bat besterik ez dela izan pentsatuz.
18. Aforismoa egunerokoa mozten dakien parentesia da.
19. Ezer ez da sekula helduko ez den “maite zaitut” aitortza bezain lasaigarria.
20. Bat-batean gertatzen diren gauza horiek ere idatzita daude (aldez aurretik).
21. Askatasuna erdietsi zutenean eta berarekin zer egin jakin ez...

Ana Urkiza Ibaibarriaga